

Ordizian, 2014ko apirilaren 3an UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi	BILDU taldea
Juan M ^a .Guereñu Aldasoro	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregui	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ taldea
Judith Otegi López de Murillas	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia	EAJ taldea
Bittor Iñaki Bolinaza Alzelai	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE(PSOE) taldea

BERTAN EZ DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ taldea (abisatu zuen ez zela etorriko).
-----------------------------	---

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra and.



Beste BERTARATZEAK ETA IRTEERAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2014ko otsailaren 27 egindako Plenorako akta onartu.
- 2.- PSE-EE(PSOE)k aurkeztutako mozioa Euskal Udal Legea bultzatzeko eta onartzekoa.
- 3.- 2013ko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.
- 4.- Kreditu transferentzia onartzea.
- 5.- Alkateak Dekretu bidez onartutako kredituen aldaketen kontu ematea
- 6.- Gazteentzako lokalen Udal Ordenantza onartzea.
- 7.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Udalak berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko
- 8- Informazioa emateko lankidetzaren hitzarmena, Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Ordiziako Udalaren artean.
- 9.- GOIEKI-ko ordezkarien izendapena aldatzea.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

Ordiziako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Programan, ONG Taupadak, Gobernuaren Kanpoko Erakundeari 2.000 euroko diru-laguntza ematea.

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:30etan

AMAIERA: 20:30etan.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2014ko otsailaren 27ako ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2014ko otsailaren 27ako ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: Ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstenzioak: 0

Beraz Alkate jaunak akta onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa Euskal Udal legea Bultzatzeko etea onartzekoa.

Proposamena

Udal Talde Sozialistak ondorengo mozioa aurkezten du Udal Osoko Bilkuran, EUSKAL UDAL LEGEA bultzatzeko eta onartzeko:



Oinarriak:

Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta iraunarazteko abenduaren 27ko 27/2013 Legea joan den 2013ko abenduaren 30eko 312 zenbakidun Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta Lege horren seigarren azken xedapenak argitaratuko zen biharamunean sartuko zela indarrean ezartzen zuen. Lege hori beste modu honetara da ezaguna: "Udal erreformaren Legea" eta, ustez, Tokiko Administrazioa arrazionalizatzea eta bikoiztasunak, eskumen desegokiak,.... kentzea du helburu. Eta hori guztia soiltasun-irizpide teorikoen arabera eta orain dela bost urte jasaten dugun krisiaren testuinguruan.

Hala ere, PP eta EAJ alderdiek onartu duten testuaren garrantzi praktikoa oso bestelakoa izango da: hasteko, Konstituzioak berak bermatzen duen tokiko autonomiari larriki kaltetzen dio, udaletxeen gainean erabat onartezina den babes ekonomiko eta juridikoa gauzatuz, are gehiago kontuan hartzen badugu Espainiako Administrazioaren zorraren % 5 gutxienez Udalen zorra dela. Modu berean, Udalek gaur egun eskaintzen dituzten zerbitzu publiko askori pribatizatuak izateko bidea irekitzen die edo beste batzuk prestatzeari utzi egingo zaie; 20.000 biztanle baino gutxiago duten udalerrak ere "de facto" desagertzea proposatu du eta Euskadin adibidez, Udal gehienek dute biztanle-kopuru hori baino gutxiago.

Guzti horri Euskal Udal Lege bat ez izatea gehitu behar zaio, Tokiko erreforma horren ondorioak arintzeko baliagarria izango litzatekeen legea; baina, 30 urte baino gehiago autogobernua izan ondoren eta berezko eskumena bada ere, ez da sekula Udal Lege bat garatu, euskal Udalek historikoki –eta bereziki azken urteotan– eskari hori egin izan duten arren.

Dena den, eta EAJ alderdiaren Euskal Gobernu berriak hartu duen konpromisoa bada ere, eta alderdiko bozeramaile Erkoreka jaunak Udal Legea 2014ko lehenengo seihilekoan Legebiltzarrera eramateko konpromisoa hartu badu ere, orain dela egun gutxi Alderdi Sozialistak Legebiltzarrean egin zuen galderari honela erantzun zion: "baliteke hilabete batzuk atzeratzea, irailera edo urrira". Hau da, beste atzerapen bat aurkeztuko den egun berria finkatu gabe eta beste ezer gehiago zehaztu gabe; hortaz, Tokiko Erreforma lehen presazkoa baldin baten, orain dagoeneko premiazkoa da.

Horregatik, Udal Talde honek ondoko MOZIOA aurkezten du:

- 1. Osoko Bilkurak Legebiltzarrean hartutako konpromisoak bete ditzala eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari eta, 2014ko lehenengo seihilekoan, Euskal Udal Legea Eusko Legebiltzarrera eraman dezala eskatzen du, ahalik eta lasterren aipatu legea izapidetu eta onartua izan dadin.**
- 2. Lege horren izapidetzean, Osoko Bilkurak EUDELen ordezkaturata dauden Euskal Udallerrien eta dauden udal elkarteak edo erakunde desberdinen iritzia entzun eta aintzat har daitezela eskatzen du, ahal den neurrian haien eskariak jaso eta erantzun daitezela.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.



Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Dubreuil jn.

Pasa den urtean apirila inguruan udal lege berriaren aurkezpena bizkortzeko PNVk, BILDUK eta PSE-EE (PSOE)k akordioa lortu zutela azaldu du. Ordutik hona guztia martxan onean zihoala zirudien, baina Erkorekak egin dituen adierazpenak ikusita badirudi legearen aurkezpena atzeratu egingo dela. Mozio honen bitartez aurkezpen hori bizkortzeko eskaera egin nahi dute, eta 3 alderdien artean adostutako epeak betetzeko. Horrekin batera, azpimarratu du premia-premiazkoa dela Toki-Administrazioentzako PPK proposatutako erreformari aurre egiteko, eta Eusko Jaurlaritzari premia eskatzen zaio emandako hitza betetzeko, eta esan bezala 2014ko lehen seihilabetean lege hau onartzeko.

Asenjo jn.

Adieraztea, egia dela Euskal Herriko ezker alderdien aldarrikapen historikoa izan dela Lege hau bultzatu eta onartzea, beti ikusi dugula Udalak ez garela adin txikikoak, eta gai garela ditugun eskumenen barruan, arauak aurrera eraman eta kudeaketa txukun bat egiteko, eta beti agerian egon dela eskuin alderdien artean horren aurka daudela, eta jarrera hori argi dagoela orain PP alderdiak Estatu mailan egin duen Lege proposamenarekin; jarraitu du esanez ez dutela inongo oztoporik jarriko mozio hau onartzeko nahiz eta gurea ez izan, eta azpimarratu du mozioaren bigarren puntuan kiñu txiki bat ere egiten dela "Euskal Udalerri eta dauden udal elkarte edo erakunde desberdinen iritzia" esaten denean, nahiz eta Udalbiltza garbi ez jarri; bestalde adierazi du alderdi sozialistari kritika txiki bat ere egin nahi diola, mozio honek alderdikoi kutsu bat ere baduelako, zeren eta gai honekin alderdi sozialista eta EAJ akordio zabal batera iritsi ziren "un acuerdo de pais" beraien hitzetan, eta horren barne zegoen hona ekarri den akordio hau, eta ez zaio oso dotorea iruditzen Udalera ekartzea, bien artean konpondu ezin duten gai bat; bukatu du esanez ea nola onartu daitekeen Udal lege berria "LTH" legea aldatu gabe, oso zaila ikusten dutela hori posible izatea.

Dubreuil jn.

Esan dio egiazki ez dakiela zein akordio lortu zuten PNV eta PSE-EE(PSOE) alderdiek, baina argi duena da zein akordio lortu zuten gai honen inguruan hiru alderdien artean; eta nola egin daitekeen udal lege berria LTH legea aldatu gabe, galdera horren aurrean, erantzun du ez dakiela, baina beharbada aldatu egin behar dela. Bere alderdia Gobernuan egon zen bitartean euskal udal legea ateratzeko gai izan ez zela esan duenaren inguruan berriz, gogorarazten dio Lege proiektua bere horretan geratu zela Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundien baliabide eskasengatik, eta beraz, PNVk eta PPK oztopatu zutela .



Santamaria in

Azaldu du mozio honen inguruko kritika bitan zatituko duela. Lehenik, Estatuko Lege honen inguruan PNVk PPri lagundu diola esanez behin eta berriz egin diren aipamenei buruz, adierazi nahi du gai honen jatorria Sozialisten Gobernuetan onartutako legealdietan dagoela, eta udalen autonomia urratzen zutela. Hau alde batera utzita, azaldu du bere alderdiak ikusi zuenean Estatuko Legea serio aurrera zihoala, PNVk defentsarako jarrera praktikoa izan zuela euskal autonomia erkidegoan ahalik eta eragin txikiena izateko, eta horregatik jasotzen dela aipatutako Legean foru-bereizgarritasuna, eta horri esker Eusko Legebiltzarrak, Foru Aldundiek eta Udalek erabakiko dutela zeintzuk diren udalen eskumenak eta hori ez dela Madrilen erabakiko. Bestalde, adierazi du, Eudelen, nahiz EAeko Udalen gehiengoa izan den foroetan, bere alderdiak beti defendatu duela euskal erakunde guztien eskumenak zeintzuk diren definitzeko beharra, eta baita euskal udal legea definitzeko beharra. Horrez gain, mota guztietako gobernu guztiak saiatu direla aipatutako legea onartzen, eta inork ez duela aurrera ateratzea lortu. Amaitu du esanez, aipatutako erreparoa alde batera utzita mozioa babestuko dutela.

Dubreuil in

PPren legea oinarrizko Lege bat dela adierazi du eta hortaz, nahitaez aplikatu beharrekoa. Ez du PNVk azaldutako pozarekin bat egiten, hauek adierazten dutenean ez diela EAeko eskumenei eragingo. Aurkeztutako mozioaren helburua da Euskal Udal Legea onartzeko finkatutako epeak eta konpromisoak betearaztea.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstenzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



3.- 2013ko Arrekonatuaren likidazioen berri ematea

Alkateak Berezko Aurrekontuaren likidazioa, "San Jose" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa eta "Herri Antzokia" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa onartu ondoren, Gipuzkoako Toki erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua betetzeko, likidazio hauen berri ematen da Osoko Bilkuran:

	Aurrekontuen emaitza	Diruzaintzako aurrezki garbia
Berezko Aurrekontua	190.325,66	618.749,61
"San Jose" Erakunde Aut.	0,00	-5.482,17
"Herri Antzokia" Erak.Aut.	18.079,48	78.958,54

Kontuhartzaile jn.

Eman du espedienteari buruzko informazioa, adieraziz bertan jasotzen direla Udalaren likidazioa, eta Erakunde Autonomoak diren San Jose eta Herri Antzokiarenak; hauek Majori eta Ordizia Lantzen sozietate izaera duten kontuekin batera kontu orokorra osatu beharko dute eta ekarri behar da uztailaren 30a baino lehen, azpimarratu du hona ekarri diren kontu hauen emaitza nahiko positiboa izan dela, krisi egoeran gaudela kontuan izanda, eta azkenik espedientearen datu esanguratsuenak aipatu ditu.

Osoko Bilkura jakitun geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Kreditu transferentzia onartzea

Proposamena

Hildako pertsonak errausteko joera haunditzen ari delarik, Hilerrian beharrezkoa ikusi da patzela bat egokitzea kolunbario bat egiteko.

2013ko Aurrekontuan 7.018 euroko erreserba egin zen Landarri enpresak lurzoruaren prestaketa egiteko, eta 2014ko Aurrekontuan Kolunbario egiteko 26.000 euroko kreditua ezarrita dago.

Partzelaren prestaketaren gaia aztertu denean ikusi da gorpuak banan banan atera beharko zirela senideak hala eskatu ezker. Harremanetan jarri ondoren finkatu da zenbat atera beharko diren bakarka eta honek aurrekontua eraman du 14.354,23 eurotara 7.336,23 euroko kredituaren falta azalduz.



Zerbitzu Delegaritzak planteatu du falta den kreditu hori 601.511.00.02 partidatik (Obra txikiak) hartzea.

AKORDIO PROPOSAMENA

601.511.00.02 partidatik 622.443.00.01.2013 partidara 7.336,23 euroko kreditu transferentzia egitea onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Kontuhartzaile in.

Espedienteari buruzko azalpena eman du, eta adierazi du hilerriko partzelaren prestaketaren gaia aztertu denean ikusi dela gorpuk banan banan atera beharko zirela senideek horrela eskatu ezker. Harremanetan jarri ondoren finkatu da zenbat atera beharko diren bakarka eta honek aurrekontua eraman du 14.354,23 eurotara 7.336,23 euroko kredituren falta azalduz, , eta falta den kreditu hori 601.511.00.02 partidatik (obra txikiak) hartuko da.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (BILDU 7)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 5 (EAJ 4, PSE-EE (PSOE)1)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Alkateak Dekretu bidez onartutako kredituen aldaketen kontu ematea

Gipuzkoako Toki Erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua arabera, Osoko Bilkuran Aurrekontuen aldaketen berri eman behar da.



Aurten oraingoz onartutako aldaketak honakoak dira:

Kreditu transferentziak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
3	266	2.920,00

Kreditu gehigarriak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
1	259	16.532,14
2	275	6.000,00
3	276	4.077,07

Kreditu eransketak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
1	256	465.047,08

Kreditu gaikuntzak		
Zenbakia	Dekretu zenbakia	Zenbatekoa
1	264	5.500,00
2	274	3.400,00

Kontuhartzaile jn.

Gogorarazi du honen informazioa eman zela Udal Osoko Bilkuraren Gaien Informazio batzordean.

Osoko Bilkura jakitun geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Gazteentzako lokalen Udal Ordenantza onartzea.

Proposamena

Ordiziako gazteentzako lokalen Udal Ordenantza onartzeko bideratu den espedientearen berri ematen da, Ordenantzari 2013ko martxoaren 7ko osoko bilkuran eman zitzaion hasierako onarpena.

2013ko martxoaren 18ko 53 zenbakia duen GAO n eta Udaleko iragarki-taulan argitaratu zen iragarki bidez jendaurrean egon zen epean zehar bi alegazio aurkeztu ziren.



Aipatutako alegazioak ikusita eta hasieran onartutako testuarekiko Zerbitzu Delegazioak zenbait gogoeta egin ondoren, ordenantzako testuan funtsezko aldaketak sartu dira, eta beraz, hasierako izaerarekin berriro onartzea proposatzen da eta jendaurrean ipintzeko berriro argitaratzea.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua zehazten denaren arabera, Udalari dagokio ordenantza onartzea.

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantza honako prozedura jarraitu beharko dute:

- a) Osoko bilkuraren hasierako onarpena
- b) Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
- c) Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.

Erreklamaziorik ego iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako erabakia behin betiko bihurtuko da, erabaki berririk hartzeko beharrik izan gabe.

Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Ordiziako gazteen aisialdirako lokalak arautzeko Udal Ordenantzari hasierako onarpena ematea.

2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.

3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantza behin betiko onartutko dira.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Asenjo in.

Adierazi du 2013ko martxoaren 7ko Osoko Bilkuran eman zitzaizola hasierako onarpena Gazteentzako Lokalen Udal Ordenantzari, eta 2013ko martxoaren 18ko 53 zenbakia duen GAO-n eta Udaleko iragarki-taulan argitaratu zela, eta jendaurreko epean 2 alegazio auzeratu zirela. Aipaturiko alegazioak ikusita eta hasieran onartutako testuarekiko zenbait gogoeta egin ondoren, ordenantzako testuan funtsezko aldaketak



sartu direnez, hasierako izaerarekin berriro onartzea proposatzen da eta jendaurrean ipintzeko berriro argitaratzea, azpimarratuz ordenantza berri hau egiteko, kontuan izan direla egindako ekarpenak, zentzu honetan adierazi du estimatzen dutela egindako ekarpen guztiak: gaztedia sailak, alderdi sozialistak egindakoak, azpimarratu du baita gazteekin bilerak egin direla, baita guraso eta bizilagunekin ere bildu direla, eta horien ondorioz izandako ekarpen gehienak onartu direla parametro batzuen barruan; bukatu du esanez ia itxita zegoela Ordenantza, azken momentuan aldaketa batzuk egin zirela, eta azken momentuan egindako aldaketak azaldu ditu.

Santamaria jn.

Orokorrean bere taldeak ondo ikusten du ordenantza, baina gauza pare bat aipatu nahi ditu, batetik ahaztuta zeudela kontu honekin, eta zehatz-mehatz ez dakiela zergatik atzeratu den horrenbeste, eta bestetik zalantzak dituztela kontrolari buruz, zeren eta ordenantza oso estua izanik kontrola nola egingo den hainbat zalantza sortzen ditu; bukatu du esanez nahiz eta orokorrean ondo ikusi arautegia prudentzia kontua dela eta abstenitu egingo direla.

Asenjo jn.

Adierazi du Ordenantza hau ez dagoela inondik inora itxita eta ez dela bukatutzat hartu behar, baizik eta abiapuntu eta gauza dinamiko bezala, hemendik aurrera egiten diren ekarpen guztiak ongi etorriak izango direla; jarraitu du esanez jakin nahi lukeela EAJ alderdiak, zergatik orain esaten duen restriktiboa dela orain urte bete onartu zuenean, are eta gehiago orain ekarri dena askoz ere malguagoa denean. Bukatu du esanez kritika guztiak onartzeko prest daudela, eta gogoratu du alderdi sozialistak ekarpenak egin bazituen ere, EAJ taldeak ez duela inongo ekarpenik egin.

Santamaria jn.

Erantzun dio prudentzia dela arrazoia, eta ez dakitela zergatik atzeratu den gai hau horrenbeste, eta ea zer ikusirik daukan ordenantza honek orain urte bete onartu zenarekin, eta ez dela argitu zergatik atzeratu den gaia urte bete

Asenjo jn.

Adierazi du Plenorako Gai Batzordean hitz egin zela gai honetaz eta han eman zirela argibideak, EAJ en aldetik ez dela ekarpenik jaso, eta libre dela abstenitzea baino jarraitzen duela jakin gabe orain urte bete onartu, eta orain zergatik ez den onartzen, ordenantza berria malguagoa denean.

Sr. Dubreuil

Adierazi du ez dakiela zergatik atzeratu den gaia, baina duela urtebete aurkeztutako ordenantza onartu zutela bere garaian esan zutelako hasieran onartu eta gero aurkeztu ziren alegazioak kontuan izango zirela. Aurkeztutako alegazioak kontuan izan diren arren eta ordenantzaren funtsarekin eta jasotakoarekin ados egon arren, abstenitu egingo dira ez direlako kontuan izan aurkeztutako alegazioetan azalduko diru-laguntzak, eta ez zuelako diru-kostu handirik ekarriko horrek.



Sr. Asenjo

Dubreuil jaunari eskerrak eman dizkio gai honetan egindako ekarpenengatik eta gehienak kontuan izan direla jakinarazi du. Nahiz eta orain abstebitu egingo den, duela urtebete proposamenaren aldeko bozka eman zuela gogorarazi dio. Bukatu du esanez Alderdi Sozialistak badakiela zein den udaleko diru-kutxaren egoera, eta beste lehentasun batzuk daudela eta horregatik ezin direla sartu Dubreuil jaunak proposatutako diru-laguntzak.

Sr. Dubreuil

Gogorarazi dio duela urtebete aldeko bozka eman zuela ordenantza beharrezkotzat jotzen zuelako eta hobetu zitekeela uste zuelako eta oniritzia eman zitzaioela jendaurreko informazioa zabaltzeko epean aurkeztu ziren alegazioak sartzeko konpromisoa hartu zelako. Gogorarazi dio aurkeztutako alegazioetan diru-laguntza batzuk finkatzeko proposamena egiten zela eta ez direla kontuan izan, eta beraz, ordenantza hobetu daitekeela ikusita, abstenitzea erabaki dutela.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (BILDU 7)

Aurkakoak: 0

Abstenzioak: 5 (EAJ 4, PSE-EE (PSOE)1)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

7.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Udalak berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko

Proposamena

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 2.2 artikuluan xedatzen duenez, aurreko apartatuan aurreikusitakoaren arabera udal ogasunek zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar dituzten tributu eta zenbatekoak kobratzeko, ogasun horiek Gipuzkoako Lurralde



Historikoko Ogasunerako lege ezarrita dauden eskumen eta eskubideak izango dituzte eta, hala behar denean, dagozkien administrazio prozeduren arabera jardungo dute.

Halaber, aipatu Foru Arauak 8 artikuluan dio Udalak eta Foru Diputazioa lankidetzan arituko direla hitzarmen egokia izenpetuz tributuen kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari dagozkien guztietan.

Bere aldetik, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duenak, 3.3 artikuluan xedatzen duenez, Ogasun eta Finantza Departamentuko zergabilketa organoek beren gain hartu ahal izango dute beste herri administrazio batzuen diruen bilketaren kudeaketa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren hitzarmenen bitartez.

Araudi horren babesean, Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30eko bileran erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta interesatuta dagoen Udal bakoitzaren artean sinatu beharreko lankidetz hitzarmenaren eredia onartzea, hain zuzen, Udalak berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko.

Horrenbestez, aipatu hitzarmenaren edukia Udalarentzat interesgarritzat jotzen duenez, *(erabakia hartzen duen organoaren izena)* .ak, *(proposamena egiten duen organoaren izena)* ren proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako hau,

ERABAKITZEN DU

LEHENEA: *Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30ean onartutako lankidetz hitzarmena sinatzea. Hitzarmen horren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko du Udalaren zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko ardura.*

BIGARRENA: *Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Ordiziako Udalaren izenean eta ordezkaritzan sina dezan.*

HIRUGARRENA: *Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez.*

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: Ez da eztabaidarik egon.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 1)



Aurkakoak: 0
Abstenzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8- Informazioa emateko lankidetzaren hitzarmena, Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Ordiziako Udalaren artean.

Proposamena

Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalarentzat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

Zentzu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen duenez, herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edo lege mailako arau batek ezarritako erara, salbu eta eskatutako datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak murrizpenak ezartzen dituenean.

Printzipio horrekin bat, administrazio bakoitzak interesdunei buruz euskarri elektronikoan dituen datuetara iristea erraztu behar die gainerako administrazioei, eta horretarako datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztu behar ditu, aipatutako Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta segurtasun eskema nazionalan (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharrezkoak beteaz.

Bestalde, Zergen Foru Arau Orokorreko 91. artikulua honakoak ezartzen ditu, zerga administrazioak datuak eskuratzeari buruz ari *dela*:

“1. Agintariak, edozein izaera dutela ere, lurralde historikoetako titularrak, autonomia erkidegoetakoak, estatukoak eta toki entitateetakoak; organismo autonomoak eta entitate publiko enpresarialak; ganbera eta korporazioak, profesionalen elkarte eta elkarteak; gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; gainerako entitate publikoak, Gizarte Segurantzaren gestora barne, eta, oro har, funtzio publikoan dihardutenak, behartuta daude Zerga Administrazioak xedapen orokorren bidez edo errekerimendu zehatzen bitartez eskatzen dizkien datu, txosten eta aurrekariak ematera, zerga alorrean garrantzitsuak direnean. Orobat, behartuta daude Zerga Administrazioari eta bere agenteei euskarria, laguntza, sorospena eta babesa eskaintzera beren eginkizunak bete ditzaten.



5. Aurreko artikuluan, artikulua honetako aurreko apartatuetan edo lege mailako beste arau batean xedatutakoaren arabera Zerga Administrazioari jakinarazi behar zaizkion datu pertsonak emateko, ez da eragindako pertsonaren baimenik behar. Esparru horri dagokionez, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari buruzkoak, 21. artikulua 1 apartatua xedatutakoa ez da aplikatuko."Era berean, Zergen Foru Arau Orokorreko 92. artikulua honako hau ezartzen du, zerga datuen lagapenari buruz:

"1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izaera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:

b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.

d) Beste edozein herri administrazioekin elkarlanean aritzea, fondo publikoetatik edo Europar Batasunetik ematen diren diru laguntzak lortu edo jasotzean egiten den delitu fiskalaren eta iruzurraren aurka borrokatzeko.

j) Zergaz kanpoko baliabide publikoak biltzeaz arduratzen diren zuzenbide publikoko organo eta entitateei laguntzea ordaintzera behartutakoak behar bezala identifikatzeko.

l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde administrazio publikoekin elkarlanean aritzea, haren eskumeneko zuzenbide publikoko sarrerak biltzeko.

Aurrekoarekin bat, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduak, informazioa emateko lankidetzan hitzarmen ereduak, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalen artean sinatzekoa, onartu zuen.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta, proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA: Informazioa emateko lankidetzan hitzarmen sinatzea, 2014ko otsailaren 24an emandako 148/2014 Foru Agindu bidez onartutako ereduari jarraiki, bere A1, A-2, A-3 eta A-4 eranskinekin batera.



BIGARRENA: *Sinatzea ondoren zehazten diren eranskin ereduak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak informazioa emateko Udalari: D-3.*

HIRUGARRENA: *Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Ordiziako Udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.*

LAUGARRENA: *Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkate-lehendakariak sinatuta.*

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: Ez da eztabaidarik egon.

Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstenzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- GOIEKI-ko ordezkarien izendapena aldatzea.

Proposamena

2011ko abenduaren 19ko osoko bilkuran hartutako hitzarmenaren berri ematen da. Bertan adostu zen:

.- Goiekin Udaleko ordezkari Igor Eguren Izagirre eta Belen Maiza Urrestarazu izendatzea.

BILDU eta EAJ-PNV artean adostutako akordiaren arabera, proposatzen da honako

AKORDIO PROIEKTUA

Goiekin Udaleko ordezkari JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA izendatzea; ahotsarekin baina bozketa eskubiderik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.

Adierazi du puntu honek azalpen labur bat merezi duela, azken hilabeteetan Bildu eta EAJ alderdiek gai honi buruz hitz egin dutela eta hainbat barne bilera egin direla Goiekiko osaketaren inguruan hitz egiteko, eta adostasun orokor batera iritsi da, EAJ taldea Goiekiko administrazio kontseiluan egoteko ahotsa eta bozkarekin, nahiz eta eskatzen zen moduan eta ordezkariak zein herrietan inkorporatu gaiari buruz Bilduk modifikazio bat eskatu duen egunero dinamikan gabiltzan ordezkarien betebeharrak kontu batengatik. Ordiziako Udalari dagokionez, eta nahiz eta akordioa herri guztietan oraindik gauzatu gabe egon, Ordiziako Udalari eragiten dion akordioa da EAJ administrazio kontseiluan egotea ahotsarekin baina bozkarik gabe, eta EAJ taldearen erabakiz ordezkari hori Santamaria jauna izango da. Bukatu du esanez etorkizunean eta hurrengo legealdi begira, helburua dela orain arte hitzezkoa izan den filosofia alderdi guztiak administrazio kontseiluan ordezkatuta egoteko papera eraman eta plasmatea.

Dubreuil jn

Jakin nahi du filosofiaz aldatzeko zer aldatu den. Lortutako akordioa soilik gaiaren ingurukoa den jakin nahi du, orain arte ez baitaie Goiekin sartzen utzi.

Alkate jn.

Hori ez da zuzena, gai hau ez da gaur eztabaidatzekoa, ez luke atzera begira jarri nahi, akordio hau dator azken hilabeteetan izandako hartu eman zuzen batetik, Bilduk beti izan du atea zabalik alderdi guztiak Goiekiko administrazio kontseiluan egotera. Lehenengo administrazio kontseilua osatzeko izan ziren elkarrizketetan, alderdi guztiak bertan egoteko ahalegina egin zen eta are eta eragile gehiago bertan izateko ere Estatutuek esaten duten bezala, eta orduan trakestu zen kontua; akordioa da malgutasunez ulertzen delako nahiz eta Bilduk pentsatu Goiekiko administrazioa osatzeko eta jarduerarako beste erabateko neurriak hartu behar direla, iruditu zaigu egokiagoa dela ezer aldatzen hasi baino lehen, lehenengo denok bertan egotea. Akordioa argitara izaten denean garbi geratuko den egin dena dela proposamena onartu bere horretan nahiz eta eskatzen zen moduan eta ordezkariak zein herrietan inkorporatu gaiari buruz Bilduk modifikazio bat eskatu duen egunero dinamikan gabiltzan ordezkarien



betebehar kontu batengatik. Bilduren partetik ez da ezer aldatu, ikuspegi berdinarekin jarraitzen du, akordio honetan ikusten da Bilduk malgutasun bat duela, esku zabaltasuna eta akordioarekin ikusi da gai honetan EAJ taldeak eskualdearen garapenerako ere postura bera duela, etorkizunean nola eta zer egingo den, hor egin nahi du indarra Bilduk, hori da paperera ekarri nahi dena, nolabait alderdi batek eskualdean hegemonía eduki duenean alderdi guztiak Goiekin ordezkari izateko egon den filosofi delako hori benetan nola bermatuko den etorkizunean paperean .

Santamaria jn

Azpimarratu du akordioa ez dela soilik Ordiziarako izango, eta beste udalerrri batean ere hartu dela erabaki hori, Lazkaon hain zuzen ere.

Dubreuil jn

Akordioa egiteko eskaintza Bilduk egin zuen galdetu du.

Santamaria jn

Ezetz erantzun dio, alderdien arteko negoziazio baten ondorioz etorri dela esan dio.

Alkate jn

Politika ulertzeko modu desberdinak daudela esan du, ez dela beti eskaera eta eskaintza baten beharrik, eskualdearen garapenerako bi alderdien interesa egon dela azaldu du. Honekin batera, adierazi du duela 4 hilabetetatik hona ez dagoela alderdi sozialistaren ordezkariarik Goiekin, eta behin baino gehiagotan eskatu duen arren, ez dutela esan zeinek beteko duen Ana Cresporen tokia.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du presazko bidetik sartutakoa:

Aho batez onartu da puntu hau presazko bidetik sartzea.

Ordiziako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Programan, ONG Taupadak, Gobernu Kanpoko Erakundeak 2.000 euroko diru-laguntza ematea.

Proposamena

Ordiziako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Programan, Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak, arautzen dituen araudia jarraituz, eta 2014 urteko ekitaldiari dagokionez,

Honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

ONG TAUPADAK, Gobernu Kanpoko Erakundeak, 2.000 €ko diru-laguntza ematea ONARTZEA, BOLIVIA-n Beni departamentuan, TIPNIS izeneko lurralde indigenan izandako uholdeak ekarritako larrialdi egoerari aurre egiteko.

ONG TAUPADAK erakundeak, gauzatuko duen proiektua “Recuperación de la autosuficiencia alimentaria del indígena tras la inundación” izango da.

BOLIVIA-n Beni departamentuan, TIPNIS izeneko lurralde indigenan, 66 komunitate bizi dira, eta han gertaturiko uholdeak, beraien bizimodua suposatzen zuen nekazaritza, baratzen bitartez, eta oiloen zainketak, galtzea ekarri du.

Erakunde honen helburua, komunitate hauei, berriz ere, beraien bizimodurako tresnak eskaintzea eta berreskuratzea da, eta horretarako ondorengo baliabideak banatuko zaizkie:

- Landatzeko hazien banaketa.
- Oiloen banaketa.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Maiza andrea:

Adierazi du Ordiziako Udaleko Garapenerako Lankidetzaren Programan, Ekintza gizatiarrentzako larrialdietarako laguntzak, arautzen dituen araudia jarraituz, ONG TAUPADAK, 2.000,00 euroko diru-



laguntza ematea proposatzen dela , BOLIVIA-n Beni departamentuan, TIPNIS izeneko lurralde indigenan izandako uholdeak ekarritako larrialdi egoerari aurre egiteko. Erakunde honen helburua, komunitate hauei, berriz ere, beraien bizimodurako tresnak eskaintzea eta berreskuratzea da, eta horretarako ondorengo baliabideak banatuko zaizkie:

- Landatzeko hazien banaketa.
- Oiloen banaketa.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 7, EAJ 4, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- Galde-erreguak.

Dubreuil jn

PPk proposatutako toki administrazioetako estatu mailako lege berriaren edukia irakurri du, puntu honetan: "lege honen xedapenak autonomia erkidego guztietan aplikatu beharko dira beraien autonomia estatutuetan toki araubideari dagozkion gaietan ezarrita dauden eskumenei kalterik egin gabe...", eta ondoren berezko sistema instituzionala duten autonomia erkidegoak aipatu ditu eta PNVren poza lehenengo xedapen gehigarrian islatzen dela esan du, Euskal Autonomia Erkidegoari aplikatzen zaion araubidean jartzen duen tokian, baina geroxeago beste araubide bat dago Nafarroako Foru Komunitateari aplikatzen zaiona, Aragoiko Komunitateari aplikatzen zaiona, Ceuta eta Melillari, Madrili, Bartzelonari...; amaitu du esanez lege hau era berean aplikatuko dela gure lurraldean eta beste autonomietan, eta beraien poza hor islatzen dela.



Santamaria jn

Argi utzi nahi izan du ez duela bere poza azaldu nahi izan berak esandakoarekin, horrez gain, bere alderdiari ez zaio batere gustatzen lege hau eta bukatzeko esan nahi du gure lurraldearen errealitatea ez dela Estatuko gainerako lurraldeen errealitate bera.

Alkate jn.

Adierazi du bat egiten duela Santamaria jaunak esandakoarekin, eta hau dena soluzionatzen dela erabakitzeko eskubidea edukita.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

